Notario ezabalgarriko soilik.
Para uso exclusivo notarial.

5986910

MIGUEL ANGEL MARTINEZ URROZ · NOTARIO DE LASARTE-ORIA

0,150253 €

Hernaniko Udala — Oiartzungo Udala — Usurbilgo Udala

ESTATUTUAK

**LEHEN KAPITULUA.- IZENA, XEDEA, EGOITZA ETA IRAUPENA.-**

**1. artikulua.-**

Garbitania Zero Zabor, S.L. izeneko erantzukizun mugatuko merkataritza sozietatea eratu da, eta sozietate hori arautuko dute Estatutu hauek, Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legeak eta gainerako lege xedapen osagarriek.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 3.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Usurbilek, Hernanik eta Oiartzunek erakundearen kapital sozialean partaidetza dutenez, sozietatea sektore publikoaren barruan egongo da eta aipatutako legea aplikatuko zaio.

Horiek horrela, erakundeak Hernaniko, Oiartzungo eta Usurbilgo Udalen bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izaera izango du.

**2. artikulua.-**

Sozietateak zuzenean nahiz zeharka egin ditzake ondoren zehazten diren jarduerak, baita xede bereko edo berdineko edozein motatako sozietateetan parte hartuz ere.

A) Hiri hondakinak eta bateragarriak diren hondakinak gaika biltzea, kudeatzea, aprobetxatzea eta tratatzea hala badagokio, arlo horretan indarrean dauden xedapen legalak eta europarrak betez.

B) Arlo horietan mota guztietako aholkuak ematea eta bilketa, kudeaketa eta tratamendu sistema espezifikoak inplementatzeko bitartekoak eta moduak sustatzea, hondakin sorkuntza ahalik eta gehien murrizteko, ahalik eta gehien birziklatzeko eta arlo horretan indarrean dauden xedapenetan zehaztutakoa hobeto betetzeko.

**3. artikulua.-**

Sozietatearen iraupena mugagabea da eta eraketaren egun berean emango die hasiera bere jarduerei.

**4. artikulua.-**

Sozietatearen helbidea Usurbilen egongo da, Udaletxean (Plaza Jose Martin Sagardia plaza, z/g, Usurbil 20.170). Dena den, Administrazio organoak edozein tokitan jarri, lekuz aldatu edo kendu ahal izango ditu sukurtsalak, agentziak edo ordezkaritzak.

**BIGARREN KAPITULUA.- KAPITAL SOZIALA.-**

**5. artikulua.-**

Kapital soziala BOSTEHUN MILA EUROKOA (500.000,00 €) da. Diru hori bostehun (500) partaidetza sozialetan banatua dago eta mila (1.000 €) eurokoa da bakoitzaren balio nominala. Partaidetza horiek, berriz, banaezinak eta metagarriak dira, hurrenez hurren zenbakituak 1etik 500era, biak barne, eta erabat harpidetuak eta ordainduak.

MIGUEL ANGEL MARTINEZ URROZ · NOTARIO DE LASARTE-ORIA

0,150253 €

Notario erabilerarako soilik
Para uso exclusivo notarial

5986909



**6. artikulua.-**

Bazkideak ez dira sozietatearen zorren erantzule izango, eta jarritako kapitalaren arduradunak soilik izango dira.

**HIRUGARREN KAPITULUA.- PARTAIDETZA SOZIALAK ESKUALDATZEKO ERREGIMENA.-**

**7. artikulua.- INTER VIVOS EGINTZAREN BIDEZKO BORONDATEZKO ESKUALDATZEA.-**

Partaidetza sozialen borondatezko eskualdatzeak bete egingo ditu indarrean dagoen 2/1995 Legearen 29. artikuluan finkatutako arauak eta kontuan hartuko du, batetik, Toki Entitateen Ondasunei buruzko Arautegia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuan ezarritakoa eta, bestetik, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/03 Legean eta aplikagarriak diren gainerako xedapenetan ezarritakoa.

Bazkideek soilik eskualdatu ahal izango diete hondakinak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko xede soziala beren gain hartzen duten Udalei, Partzuergoei edo udalaz gaineko erakundeei.

Eskualdatzeko orduan erakundean kapital pribatua sartuz gero, eskualdatu baino lehen, zerbitzua kudeatzeko modua aldatzeko espediente administratiboa egin beharko da.

SIGNE, S.A.

<u>LAUGARREN KAPITULUA</u>.- SOZIETATEAREN ORGANOAK.-

**8. artikulua.-**

Sozietatea zuzendu eta administratzeko organoak izango dira Bazkideen Batzar Orokorra eta Administrazio Organoa.

**A) BAZKIDEEN BATZAR OROKORRARI BURUZ.-**

**9. artikulua.-**

Bazkideen Batzar Orokorrak gehiengoz hartuko ditu dagozkion gaiei buruzko erabakiak. Gehiengoa Legeak edo Estatutu hauek ezartzen dutena izango da. Bazkideen Batzar Orokorrari dagokio Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legeak zehaztutako gaiei buruzko erabakiak hartzea, hala nola:

a) Sozietatearen kudeaketa zentsuratzea, urteko kontuak onartzea eta emaitza aplikatzea.

b) Administratzaileak, kitatzaileak eta, hala badagokio, auditoreak izendatzea eta kargugabetzea, eta haiei erantzukizunak eskatzea.

c) Izendatutako administratzaileen artean Batzar Orokorreko Presidentea aukeratzea. Batzar Orokorreko Presidentea Administrazio Organokoa ere izango da. Batzar Orokorreko Idazkaria aukeratzea. Batzar Orokorreko Idazkaria Administrazio Organokoa ere izango da.

d) Administratzaileei baimena ematea, norberaren kontura edo besteen kontura, sozietatearen xede den jarduera bera, antzekoa edo osagarria egiteko.

Notario erailerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

5986908

MIGUEL ANGEL MARTINEZ URROZ · NOTARIO DE LASARTE-ORIA



e) Sozietatearen Estatutuak aldatzea.

f) Kapital soziala handitzea eta murriztea.

g) Sozietatea eraldatzea, fusionatzea eta zatitzea.

h) Legeek xedatutako beste edozein eginkizun.

Bazkide guztiek, baita disidenteek eta bileran parte hartu ez dutenek ere, Batzarrak hartutako erabakiak onartu beharko dituzte.

**10. artikulua.- BATZAR OROKORRA.**

1) Batzar Orokorra Sozietatearen organo gorena da, eta behar bezala deitu eta eratu ondoren, dagozkion gaiei buruzko erabakiak hartuko ditu. Batzar Orokorra Udal ordezkariek osatuko dute. Udal ordezkariak zinegotziak izango dira nahitaez.

2) Batzar Orokorra Udal bazkideek osatzen dute kapitalean duten partaidetzaren arabera. Udal bakoitzari dagokio ordezkari bat aukeratzea, eta horretarako, udal bakoitzak erabakiko du aukeratzeko modua, antolatzeko ahalmenarekin bat etorriz. Titularrak eta ordezkoak izendatu ahal izango dira, azken hauek titularrak agertzen ez direnean soilik hartuko dute parte bileretan.

3) Udal bakoitzeko ordezkariak izango duen boto kopurua eta udal berak kapital sozial nominalean duen partaidetza berdina izango da.

4) Udal gehiago sartzen badira edo udalen batek uzten badu Sozietatea, Batzar Orokorreko ordezkari kopurua egokitu beharko da.

5) Batzar Orokorreko ordezkari izatea Udal partaideen zinegotzi ordezkari karguarekin loturik dago. Beraz, zinegotzi izateari uzten badio –kargua galdu duelako edo kargugabetu dutelako edo Udalak Batzar Orokorreko ordezkari izateko erabakia atzera bota duelako– Batzar Orokorreko ordezkari izateari utziko dio.

**11. artikulua.- GEHIENGOAREN PRINTZIPIOA.-**

1) Batzar Orokorreko erabakiak behar bezala emandako botoen gehiengoaz hartuko dira, boto zuriak zenbatu gabe betiere, baldin eta kapital soziala zatitzen den partaidetzei dagozkien botoen herena baldin badira.

2) Kapital soziala zatitzen den partaidetzei dagozkien botoen erdiaren aldeko botoa gutxienez beharko da erabaki hauek hartzeko:

a) Kapital soziala handitzeko edo murrizteko edo sozietatearen estatutuak aldatzeko, gehiengo kualifikatuaren beharra aurreikusita ez dagoenean.

3) Kapital soziala zatitzen den partaidetzei dagozkien botoen bi heren gutxienez beharko dira erabaki hauek hartzeko:

a) Sozietatea eraldatzeko, fusionatzeko edo zatitzeko, kapitala handitzeko preferentzia eskubidea kentzeko, bazkideak kanpora botatzeko, sozietatea uzteko eskubidea kentzeko eta administratzaileak jarduera sozial bera egin ahal izateko baimena emateko.

Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial
5986907
0,150253 €
MIGUEL ANGEL MARTINEZ URROZ
NOTARIO DE LASARTE-ORIA



b) Hiri hondakinak eta bateragarriak diren hondakinak gaika biltzeko eta tratatzeko modu espezifikoa onartzeko.

**12. artikulua.-**

Administratzailek eta, hala badagokio, kitatzaileek Batzar Orokorra deituko dute horrelakoetan:

1) Ekitaldi bakoitzaren lehen sei hilabeteetan sozietatearen kudeaketa zentsuratzeko, hala badagokio, aurreko ekitaldiaren kontuak onartzeko eta emaitzaren aplikazioari buruz erabakitzeko.

2) Egokitzat jotzen dutenean eta, nolanahi ere, gutxienez ehuneko bosta osatzen duen bazkide batek edo gehiagok hala eskatzen dutenean. Legeak finkatutako moduan eta epeetan.

3) Halaber, kapital sozial osoa bertan dagoenean edo ordezkatuta dagoenean eta bertaratutakoek aho batez onartzen dutenean bilera egitea eta gai zerrenda aztertzea.

**13. artikulua.-**

Batzar Orokorra gutxienez baldintza hauek kontuan hartuz deituko da:

1) Gutun ziurtatu bidez, hartu izanaren agiriarekin, deialdia baino gutxienez hamabost egun naturaleko epean.

2) Deialdian hauxe adieraziko da: Sozietatearen izena, bileraren eguna eta ordua eta gai zerrenda eta bazkideen informazio eskubideari buruzko aipamena.

SIGNE, S.A.

Batzar Orokorreko bilkura behar bezala eratzeko beharrezkoa izango da kapital sozialaren erdia edo haien ordezkariak joatea, baldin eta Batzar Orokorraren bi kide biltzen badira.

Bazkide bakoitzak beste bati eman ahal izango dio bere ordezkaritza. Ordezkaritza idatziz jaso beharko da eta berezia izango da Batzar bakoitzean.

**14. artikulua.-**

Administrazio Kontseiluaren Presidentea izango da Batzar Orokorraren buru eta, bestela, bertaratutako bazkideen gehiengoak erabakitzen duen pertsona.

Idazkari izateko ez da beharrezkoa bazkide izatea. Idazkariaren eginkizunak Administrazio Kontseiluak horretarako izendatu duen pertsonak beteko ditu eta, hala badagokio, bildutako kontseilukideek izendatutako pertsona. Idazkariak hitzarekin baina botorik gabe parte hartu ahal izango du bileretan.

**15. artikulua.-**

Batzar Orokorren erabakiak Akten Liburuan transkribatuko dira, eta ziurtagiriak baimendu eta egingo dira, Legeak aurreikusten duen moduan.

**B) ADMINISTRATZAILEAK.-**

**16. artikulua.-**

Administrazio Kontseilua Sozietatea administratzen, kudeatzen eta ordezkatzen duen Organoa da. Batzar Orokorrak izendatuko ditu kontseilukideak kapitalaren gehiengoaren erabaki bidez. Kontseilukide kopurua kapital sozialean partaidetzak dituzten Udal titular kopurua baino txikiagoa ez izango eta, inolaz ere, hirutik beherakoa ezta bederatzitik gorakoa ere.

Notaria erabilera esklusiborako.
Para uso exclusivo notarial.

5986906

0,15 €

MIGUEL ANGEL MARTINEZ URROZ · NOTARIO DE LASARTE-ORIA

SIGNE, S.A.

Hernaniko Udala · OIARTZUNGO UDALA

**17. artikulua.-**

Kontseilukideak lau urtean behin izendatuko dituzte, udal hauteskundeak egin eta Udalak eratu ondoren zenbatzen hasita, hogeita hamar eguneko epearen barruan. Kontseilukideen agintaldiak ezin izango du Udalarena gainditu eta harekin batera amaituko da.

**18. artikulua.-**

Bazkideen Batzar Orokorrak Administrazio Kontseilu bat eratzea erabakiko balu, arau hauek aplikatuko lirateke:

1) Kontseilukide kopurua ez da hirutik beherakoa eta ezta bederatzitik gorakoa ere izango. Batzar orokorrak aukeratuko ditu.

2) Presidenteak deitzen duen bakoitzean bilduko dira. Presidenteak idatziz eta bost egun lehenago deituko du bilera.

3) Erabakiak bertaratu diren kontseilukideen gehiengoaren aldeko botoaren bidez hartuko dira horrelakoetan:

a) Kreditu eragiketak onartzeko.

b) Administrazio publikoekin edo beste sozietate edo erakunde batzuekin hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamenduari buruzko lankidetza hitzarmenak edo erabakiak onartzeko.

c) Erakundearen plantillaren osaketa eta organigrama onartzeko.

d) Obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzeko.

e) Obra proiektuak onartzeko.

f) Kitapen kontua onartzeko, bazkideren batek sozietatea uztea erabakitzen badu.

g) Hiri hondakinak eta bateragarriak diren hondakinak gaika biltzeko eta horiek tratatzeko zerbitzua ondo koordinatzeko eta emateko beharrezkoak diren barne erregulazioak eta araudiak onartzeko.

4) Erabakiak bertaratu diren kontseilukideen bi herenen aldeko botoaren bidez hartuko dira horrelakoetan:

a) Hiri hondakinak eta bateragarriak diren hondakinak gaika biltzeko eta tratatzeko modu espezifikoa onartzeko.

b) Bazkideen ekarpenak zehazteko arauak onartzeko.

c) Sozietatearen aurrekontua, bere exekuzio oinarriak eta kontu orokorra onartzeko.

d) Sozietatearen interesak defendatzeko egintza judizialak eta administratiboak abian jartzeko.

5) Akten Liburuan, Kontsailuaren bileretan hartutako erabaki guztiak jasoko dira.

**19. artikulua.-**

Administrazio Kontseiluak Sozietatea ordezkatuko du hala epaiketan nola epaiketatik kanpo, eta besteak beste, ahalmen hauek izango ditu:

1) Sozietatea ordezkatzea Estatuko, autonomia erkidegoetako, probintziako eta udalerrietako Administrazioaren edo Korporazio publikoen aurrean,

Notaria erabilerarako soilik
Para uso exclusivo notarial



MIGUEL ANGEL MARTINEZ URROZ · NOTARIO DE LASARTE-ORIA · NIHIL PRIUS FIDE

Hernaniko Udala OIARTZUNGO UDALA

eta baita maila, mota eta jurisdikzio guztietako Epaitegi eta Auzitegien aurrean ere, mota guztietako eskubideak, ekintzak, salbuespenak eta errekurtsoak –baita sozietatearen interesak defendatzeko kasazioa ere– baliatuz, edozein dela ere espedientea edo gaia, eta posizioei erantzutea eta epaiketan aitortzea, Abokatuak, Prokuradoreak eta Lan Harremanetako Graduatuak izendatzea, epaiketan ordezkari aritzeko behar diren ahalmenak emanez. Sozietatea ordezkatzea Ogasun Ordezkaritzen aurrean, Sozietatearen kopuruak kudeatzeko, erreklamatzeko eta jasotzeko, eskubidearen kontzeptua, titulua edo espedientea edozein dela ere.

2) Kontu korronteak, kreditu kontuak eta aurrezki libretak irekitzea eta deuseztatzea eta fondoak ingresatzea eta ateratzea, txekeak, taloiak eta ordainagiriak sinatzea, bankuen legediarekin eta jardunbidearekin bat etorriz, edozein kreditu establezimendutan edo aurrezki kutxatan, baita Espainiako Bankuan eta haren Sukurtsaletan eta Agentzietan ere.

3) Kanbio letrak eta bestelako agiriak igorri, onartu, libratu, endosatu, ordaindu eta protestatzea.

4) Mota guztietako kontratu eta egintza administratibo eta zibilak eta lan eta merkataritza arloko kontratuak eta egintzak egitea, ondasun higiezinen, eskubide errealen, altzarien, salgaien, makinen eta ibilgailuak erosteari, edukitzeari, zergapetzeari eta administratzeari buruzkoak.

5) Obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzeko.

6) Obra proiektuak onartzeko.

SIGNE, S.A.

7) Balantzea, Galeren eta Irabazien Kontua, Ekitaldiari buruzko Memoria eta mozkinak banatzeko Proposamena idaztea eta prestatzea ohiko Batzar Orokorreko bilkuran aurkezteko.

8) Beharrezkoak diren ahalmenak ematea eta ukatzea eta agiri publikoak edo pribatuak izenpetzea eta ematea.

9) Batzar Orokorrak emandako beste edozein ahalmen.

**BOSGARREN KAPITULUA.- URTEKO KONTUAK.-**

**20. artikulua.-**

Sozietatearen ekitaldi ekonomikoa bat etorriko da urte naturalarekin.

**21. artikulua.-**

Urteko kontuetan aplikatuko da Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legearen VII. Kapituluak xedatutakoa. Dena den, Legeak aurreikusitako eskakizunak bete ondoren, soilik banatu ahal izango dira dibidenduak ekitaldiaren onuraren edo nahierara erabiltzeko erreserben kargura, baldin eta zenbatu daitekeen ondare garbia ez bada, edo banaketaren ondorioz ez bada, kapital soziala baino txikiagoa. Aurreko ekitaldietako galerak sozietatearen ondarea kapital soziala baino txikiagoa izatea badakarte, mozkina galera horiek konpentsatzera bideratuko da.

**22. artikulua.-**

Deialdia egiten denetik aurrera, bazkide orok izango du eskubidea onartu beharreko agiriak berehala eta dohain eskuratzeko.

MIGUEL ANGEL MARTINEZ URROZ · NOTARIO DE LASARTE-ORIA

Hernaniko Udala · OIARTZUNGO UDALA · Lasarte

**SEIGARREN KAPITULUA.- SOZIETATEA UZTEKO ETA KANPORA BOTATZEKO ESKUBIDEA.-**

**23. artikulua.-**

Bazkideek eskubidea dute Sozietatea uzteko Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legeak finkatutako kasuetan eta baldintzetan, eta horrez gain, hiri hondakinak eta bateragarriak diren hondakinak gaika biltzeko eta tratatzeko sistema espezifikoa aldatzen denean.

Halaber, sozietatetik bota daitezke, Legeak arautzako arrazoiengatik eta bertako prozeduraren arabera.

Legean edo estatutuetan adierazitako arrazoi batengatik sozietatea utzi nahi duen bazkideari partaidetzaren balio garbia ordainduko zaio, kapital sozialaren amortizazioa eta murrizketa barne, baina hauxe eskatu ahal izango zaio: une horretan abian dauden eragiketak behar bezala egingo direla zuzenbidean onarturiko edozein eran bermatzeko.

**ZAZPIGARREN KAPITULUA.- SOZIETATEA DESEGITEA ETA KITATZEA.-**

**24. artikulua.-**

Sozietatea erabat edo partzialki desegingo da, indarrean dagoen Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legearen X. Kapituluan ezarritakoarekin bat etorriz.

**25. artikulua.-**

Sozietatea kitatzeko, Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legean xedatutakoa bete beharko da.



SIGNE, S.A.